

emakume batzuekin, eta objektu sendoren batekin jo eta hiltzen badu, hori tragedia bat da. Baina emakumeak eskuan duena arku-me hanka izoztu bat bada eta gizona horrekin jo eta horrekin hiltzen badu, jendea irri txikian hasten da, eta orduan bildots hanka hori labean sartu, kozina-

Pisuari, generoari, buru osasunari, indarkeriari eta arrazari loturiko esanak dira moldatu dituzten gehientsuenak

Istripuz ekin zion Dahlek gaur egun mundu zabalean ezaguna den obra oparo horri

tu eta gizona hil duen armaren bila etorritako detektibeei jateko ematen badie, orduan hori komikoa da. Oso lausoa da muga».

Tales of the Unexpected (Ustekabeko ipuinak, 1979) helduentzako istorio laburren bildumako kontakizun baten harira esan zituen hitzok Dahlek. Ziurrenik, ez dira haurrentzat idatzi zituen liburuak bezain ezagunak helduentzatzat idatzi zituenak, baina dezenteko sorta osatzen dute, poesian, gidoigintzan eta nobelagintzan emandako lanek aberasten dutena. Gaur egun, kalkulatzen da 65 hizkuntza ingurutarra heldu dela haren obra, eta 300 milioi aletik gora dituela mundu zabalean sakabanatuta. Euskarazkoak dira horietako ez gutxi, eta hori berori bada idazlearen oihartzun handiaren isla. Besteak beste, Juan Mari Sarasolaren eta Agurtzane Ortiz de Landaluzeren itzulpenean irakur daiteke *Charlie eta txokolate lantegia*, Joxemari Iturraldearen *Matilda*, eta Joan Mari Irigoienaren *Erraldoi on miragarria*.

Gaurtik begiratuta, sinesgaitza dirudi, baina istripuz ekin zion Dahlek halako obra oparoari. Bigarren Mundu Gerraren hastapenetan, istripu bat izan zuen pilotu lanetan zebilela, eta gertara hura kontatu zuen ipuina izan zen idatzi zuen lehen gauza: *Shot down over Lybia* (Libia gainean tirokatua). Argitaratzea ere antzera gertatu ei zitzaion: C.S. Forester idazlea lantokira azaldu zitzaion, gerrako kontakizunak idazten ari zela eta, informazio eske. Idatziz pasatu zizkion soldadu ohiak, eta, Foresterrek irakurri zituenean, Dahlen izena XXI. mendera arte ekarriko zuen bide batean jarri zuen haren erantzunak: «Bazenekien idazlea zizela?».

Munduaren zarata

Irati Majuelo

Zeozer gaizki doa. Aita beti zoriontsu dagoen arren, kezkatzeko motiboak sumatzen ditu poetak, badaki zein den munduaren amaieraren soina eta jada ezin dio tximeleta hilak ikusteari utzi. Gainera, tomateak loratu dira Helsinkin. Desgairan, lekuz kanpo. Hala ikusten du Txibitek mundua, gainbeheran, kolokan igartzten du aurrez ezagututako erreallitatea, eta, beraz, deserosotasun eta desdoitze horiek hartu ditu hizketagari azken poema liburuan.

Hiru atal nagusitan banatzen da Pamielak berriki argitaratu duen lana, eta hiru ataletan zehar han-hemenako azalazten dira poetak bere aurreko lanetan jorratu dituen gaietako zenbait: hiri eta bere jendea, deserria, etxerekiniko distantzia, harremanen akabera... Alabaina, honako honetan, Txibitek bestelako kezka batzuei ematen die bide, jadanik



'Zeozer gaizki doa'

Idazlea: Beatriz Txibite. Argitaletxea: Pamiela.

bere-berea duen unibertso poetikotik ateratzen gabe. Hau da, ingurune urbanoak hautematen dira, atzerriko herrialdeetan kokatzen diren erreferentziak daude, baina horiek testuinguru izanik, ni poetiko artega bat azalazten da, lefroarte adieraziz klima aldaketak sortutako larritasunak, hurbilekoen galerak eragindako mina edota kaskarkeriari buruzko hausnarketak. Oro har, pandemiaren eta konfinamenduaren itzala suma daiteke liburu osoan, argi irudikatzen direlarik poema ugaritan itxitasunak idazleari sortutako ezinegona eta nekea, bat-batean gelditu behar eta ezin hori: «nire bizitza/ murriztu da/ non daude/ zabalatasuna eta aukerak».

Alabaina, badira ni poetikoaz gain poemetan protagonismoa hartzen duten beste zenbait pertsona ere, bisitariak balira bezala: aita, Federico, Tom, Mandy, Lukas, Valeria. Ni poetikoarekin egunerokoa konpartitzen duten figurak dira, eta, hala, hurbileko bilakatzen dira poemok, kolorea eta bizia ematen baitiete adierazitako gertaerei. Bestalde, poema ugaritan zuzentzen zaio ni poetikoa bigarren pertsona bati, batik bat, galdutako aukerez, izan ze-

naz eta amaitu denaz hitz egiterakoan. Orokorrean, iraganera begiratzeko, gogoratze joera sumatzen da bilduma honetan.

Horrez gain, azpimarratu behar da Txibitek estilo argi eta zuzenari eusten diola, hizkuntzari hanpandurarik eta bihurritzerik egin gabe. Irudiak eta mezuak abileziaz bateratzen ditu idazle iruindarrak, nahasteko edota bigarren zentuak bilatzeko aukerak itxiz. Halaber, laburrerako joera mantendu du, hainbatetan ematen duelarik poemak eskuko telefonoko ohar pertsonalak direla, norbere buruari egindako gogorazpen edo hausnarketak. Liburuak osotasuna eta heldutasuna erakusten badu ere, poeta zaildu baten ibilbidearen ondorio, egia da poemetako zenbait boro-bilduegi ageri direla ere, testuan zehar irudi artean garatzen joan den ideia argi geratu dela ziurtatu nahiko balitz bezala. Hots, irakurleari murtzikatu samar helarazten zaiola mezua, haren esku darduen irakurketa librean oztapatuz. Hala eta guztiz ere, garai nahasion zarata-soinua trebe atzemanda, Txibiteren ibilbide literarioan beste urrats sendo bat agertzen du azken poesia liburu honek.

Freaks

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Atalka banatutako ipuin luze erromantikoa da *La Belle*. Irakurketa errazekoa, bere hirurogei orrialdeetan Danielle narratzaileak bere haurtzarora eramaten gaitu, arrasto sakona utzi zion bizilagun maitagarria aurkezteko. Doro (teo) zuen izena gizon txiki hark, erretiroa hartu eta etxera itzuli zen arte zirkuan aritutakoa. Kariño handiarekin hartu zuten elkar, kontatzen digu. Goiko solairuan bera, azpikoan Doro, zoru-sabaian kaskatekoa joaz hots egiten omen zioten elkarri, berriketarako ziren topaketak abiatzekotan. Kontatzen digu ere lanbide exotiko haren albisteek nola sorgintzen zioten gogoa, eta nola begiratzen zuen Doro miraz. Harreman harekin, gainera, Daniellek bere haurtzaroko xalotasuna gal-

du zuela aitortzen digu, batik bat aitarekin *Handia* filmaren ikustaldiak sortutako hausnarketek Dororen bizitzaren alde garrantza ulertzen lagundu ziotelako, eta hedaduraz bizitzak argiak bezala itzalak dituela ulertzen hasi zelako. Ipuin erromantikoa honen gailurra amaieran gertatzen da. Komiketako binetak diruditen ilustrazioak ditu. Liburuaren amaieran hiztegitxo bat dago Doroteok frantseseko hitz zenbait erabiltzen dituelako.



'La Belle'

Idazlea: Uxue Alberdi. Ilustratzailea: Bruno Hidalgo. Argitaletxea: Elkar.


Zaharrak berri

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Atzera begira luze batez kontatutako narrazioa da, bederatzita ataletan banatuta dagoena. Narratzailea nerabe gaztea da, iraganera lau urteko jautzia egiten duena garai hartan bizitakoak guri kontatzeko. Atseginaren eta minaren artean sortutako oroitzapenak dira, migratzaile etorri-berri bati egindako harrera itsusia kontatzea mingarri zaiolako, bere oso gertukoek ere erruki gutxiz jokatu zutelako «trenak ekarritako hezurbeltz» hari buruz hitz egiten zutenean. Era berean, emozio handiz kontatzen du Jazinto zeritzan gizon haren konpainiak zenbateko atsegina sortu zion, jakintsua baitzen txori kontuetan, eta tratutako oso gozoa. Azalpenetan, gainera, bizitzari buruzko hamaika haus-

narbide zabaldu zizkion, kukuarrena esaterako, zeina Jaxintoren bizitzaren metafora gisa erabili omen zuen, haren jatorriari buruz galdekatzun zutenean, edota etxean entzundakoak tolesgabe aurpegiatzen zizkionean. Sozialetik asko duen kontakizuna da, 1957an kokatuta dagoena eta zuri-beltzeko hamaika ilustrazio lagundua, kontakizunaren une jakin batzuk azpimarratzeko balio dezaketena.



'Kukuaren kantua'

Idazlea: Idolo Garzes. Ilustratzailea: Belatz. Argitaletxea: Elkar.